

Hizkuntzen ukipena

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa II
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Uxoia Iñurrieta

2. Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai hau Hizkuntza eta Literatura espezialitateko bigarren modulu espezifikoa kokatzen da, eta euskal hezkuntza-sistemaren funtsezko ezaugarri bat du aztergai: testuinguru eleaniztunetako ikas-irakaskuntza, hizkuntza gutxitu baten biziberritzea tartean denean. Hizkuntzen ukipenaren oinarri-oinarrizko dimentsio sozialetatik abiatuta, hizkuntza gutxituen (eta zehazki euskararen) biziberritzean eta eleaniztasunaren tratamenduan jarriko da arreta, askotariko hezkuntza-erronkei nola aurre egin aztertzeke.

3. Konpetentziak

- Munduko eleaniztasunaren ezaugarri soziolinguistikoaren eta aniztasun kulturalaren inguruan hausnartzeko gaitasuna, eta ukipenean dauden hizkuntzen egoeraz eta horrek duen garrantziaz jabetzekoa, arreta euskararen kasuan jarrita.
- Ukipen-egoeran dauden hizkuntzen ezaugarri sozialak identifikatzeko gaitasuna, hizkuntza-aniztasunaren azterketatik abiatuta.
- Hizkuntzen ukipenaren ezaugarriak ulertzeko eta ukipen-egoeran dauden hizkuntzen ezaugarri linguistikoak identifikatzeko gaitasuna.
- Hizkuntza-politikaren prozesuez eta eragin-esparruez hausnartzeko gaitasuna, hizkuntza-plangintzaren eta haren dimentsioen oinarri teoriko-praktikoak aintzat hartuta (corpusaren plangintza, estandarizazio-prozesuak eta abar.).
- Askotariko informazio-iturriak erabiltzeko eta haietatik informazio esanguratsua ateratzeko gaitasuna, informazio hori kritikoki aztertu, interpretatu eta ebaluatuta.

4. Ikas-emitzak

- Hizkuntzen ukipena zer den ulertzea eta konturatzea zergatik den garrantzitsua fenomeno hori kontuan hartzea, euskal hezkuntza-sisteman bereziki.
- Munduko eta Euskal Herriko hizkuntza-aniztasunaren berri izatea eta horrek bai hizkuntzetan eta bai eskolan duen eraginaren inguruan hausnartzea.
- Ukipen-egoeran dauden hizkuntzak eskolaren esparruan antolatzeko moduak ezagutzea: eredu eleaniztunak (murgiltze-eredua bereziki) eta hizkuntzen trataera integrala.
- Hizkuntza gutxituen berri lortzeko baliabideak ezagutzea, besteak beste euskara beste hizkuntza batzuen artean kokatu ahal izateko.
- Hizkuntza gutxituen erronkak ezagutzea eta eskolak haien biziberritzean egin dezakeen ekarpenaz hausnartzea.

5. Edukiak

1. Hizkuntzen ukipena eta hizkuntza-aniztasuna, munduan eta Euskal Herrian
 - Hizkuntza-ekologia
 - Hizkuntza gutxituak
 - Hizkuntza-ukipenaren ondorioak
2. Hizkuntza gutxituak eta hezkuntza
 - Eskolaren papera hizkuntza gutxituen biziberritzean
 - Irakaskuntza-ereduak
3. Eleaniztasuna eta Hizkuntzen Trataera Integrala
 - Euskal eskola eleaniztunaren ezaugarriak
 - Hizkuntzen Trataera Integrala egiteko baldintzak eta osagaiak

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta orduetgia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

- Aierdi, X., Uranga, B. eta Iñarra, M. (2021). Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza aniztasunaren mapa. Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabera hurbilketa. *BAT soziolinguistika aldizkaria* 119, 11-38.
- Aldekoa, A. 2018. Gure Ikastola en tres languages: the teaching and learning of trilingual oral expository skills. *Theory and Practice of Second Language Acquisition* 4-2, 73-92.
- Bhatia, T.K. eta Richie, W.C. (2013). *The handbook of bilingualism and multilingualism*. Blackwell Publishing Ltd.
- Cenoz, J. (2009). *Towards Multilingual Education*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Dolz, J. (2005). Implications didactiques de la proximité linguistique. Réflexion à partir d'expériences d'enseignement plurilingues en langues romanes. In Prudent, L.F., Tupin, F. And Wharton, S. (ed.). *Du plurilinguisme à l'école. Vers une gestion coordonnée des langues en contextes éducatifs sensibles*. Berna: Peter Lang.
- Elortza, I. eta Muñoa, I. (2010). Euskara sustatzeko eleaniztasuna: ikastolen kasua. *Ikastaria* 17, 39-66.
- Idiazabal (2000). Hizkuntza trebetasunen transferentzia programa elebidunetan. *Ikastaria* 12, 143-154.
- Idiazabal, I. eta Manterola, I. (2009). Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa. *Euskera* 54, (2-1), 463-504.
- Idiazabal, I., Manterola, I. & Diaz de Gereñu, L. (2015). Objetivos y recursos didácticos para la educación plurilingüe. In García-Azkoaga, I. & I. Idiazabal (arg.), *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*. Bilbo: UPV/EHU, 39-59.
- Iurrebaso, I. (2023). Euskara nagusi izango duten hiztunen bila. *Administrazioa euskaraz* 122, 14-17.
- Manterola, I. eta Berasategi, N. (2011). *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Bilbo: UEU.
- Rispail, M. (2003). *Le francique. De l'étude d'une langue minorée à la socio-didactique des langues*. Paris: L'Harmattan.
- Siguán, M. (2001). *Bilingüismo y lenguas en contacto*. Madril: Alianza.
- Soziolinguistika Klusterra (2021). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Euskal Herria, 2021*. Hemendik eskuratua: <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/>.
- Skutnabb-Kangas, T., Phillipson, R., Mohanty, A.K., eta Panda, M. (2009). *Social Justice through Multilingual Education*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Thomason, S.G. (2001). *Language Contact: an introduction*. Edinburgh: Edinburgh University Press.
- Zarraga, A., Coyos, J.B., Hernández, J.M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, L.V., Uranga, B. eta Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra (online)
<https://www.goi-institutua.eus>

 : goimailako
: online
: institutua